

HITZEN KUTXA 2021

XAMARIKOREN KUTXAN HITZAK GORDE

GAIA: Xamarikoren kutxa

Bazen behin keinuz komunikatzen zen herri bat. Bertan gure laguna bizi zen, Xamariko. Eta bere herrirako beste hizkuntza bat bilatu nahian motxila hartu eta mundua zeharkatzera abiatu zen. Ibiliz ibili herri misteriotsu eta majiko batera ailegatu zen. Bertan lagun bitxiak ezagutu zituen, basajaun, lamiak, galtzagorriak... Haien hizkuntza entzutean erabat maiteminduta geratu zen. Gainera bertakoek esan zioten hizkuntza zaindu nahian eta desagertzearen beldur, egunero kutxa berezi batean hitz bat gordetzen zutela. Xamarikoren irrika eta gogoa ikusita Basajaunek eta lamiak haien kutxa oparitzea erabaki zuten. Gauza bakarra eskatu zioten, berak ere egunero gustuko hitz bat gordetzeko barruan. Kutxa irekitzeko baga, biga, higa pasahitza esan beharra omen dago.

Lagunduko diguzue zuentzako berezia den hitz batekin kutxa betetzen?

PARTE HARTZEKO ARGIBIDEAK:

1.HH,2.HH, 3.HH eta 1.LHko ikasleek parte-har dezakete.

Parte-hartzaile bakoitzak KUTXA-ESKUTITZEAN hitz bat sartu eta Dindaiara bidali. Maila eta ikastetxea aipatuz. Jasotzen ditugun hitzekin ipuin bat sortuko dugu eta parte-hartzaileen artean oparituko dugu.

Maiatzaren 12ra arte hitzak helbide honetara bidal ditzakezue:


1. xamariko@gmail.com
edo
2. Dindaia Fundazioa
Oianondoa 8, behea. 31013 Berriozar

Saria:

Zuen hitzekin sortutako ipuina. Parte hartu duzuenok eskerren atalean agertuko zarete.

Facebook-en argitaratuko dugu.

ANIMA ZAITEZ GURE Xamarikoren kutxan hitzak sartzera!!



BAGA BIGA HIGA, ZURE HITZA KUTXA BARRUAN SAR DADILA

HITZAK :

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.

IKASTETXEA:

GELA: (ETA NAHI IZANEZ GERO GELAKIDEEN IZENAK):